

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

13 JOXE MARI AZURMENDI BEKAREN 2 DEIALDIA- DIRULAGUNTZA ZUZENA ONARTZEA

Hezkuntza proiektu berritzaileak sustatzea da Joxe Mari Auzmendi bekaren helburua; oinarrian ditu euskararen biziberritzea, pedagogia aurrerazalea eta inklusioa.

2021ean sinatu zen Xangorin Koop. Elkarte Txikiarekin beka ateratzeko hitzarmena, 4 urterako (2021-2024), 4 urtez luzagarria. Bi ikasturte irauten ditu beka bakoitzak; beraz, honakoa 2. deialdia da.

Xangorin Koop. Elkarte Txikiak 2. deialdiko bekaren oinarriak aurkeztu zituen; 9 lan aurkeztu ziren bekara, eta hautaketa batzordeak Jakinmin praktika filosofikoen elkartearen *Elkarrizketa argudiatu kooperatiboa: hezkuntza komunitatean hausnarketa, bizikidetza eta erabaki prozesu parte-hartzaileak sustatzeko metodologia* izeneko egitasmoa aukeratu zuen.

Jakinmin praktika filosofikoen elkartek eta Xangorin Koop. Elkarte Txikiak Joxe Mari Auzmendi Beka garatzeko aurkeztu duten aurrekontua hartu da erreferentziazat.

Diru-laguntza kopurua: 14.000,- € AD-2730/2023

Kontusaila: 1 02.481.02.323.00 2023

Kontuan hartu da Udal honetako Herritarrentzako Zerbitzuak batzorde informatzaileak, 2024ko martxoaren 21ean egindako ohiko bilkuran, aho batez emandako irizpena

Horiek Horrela Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du

1.- Xangorin, Koop.elk. Txikia(HIK HASI). Joxe Mari Auzmendi beka diruz laguntzea.

2.- Xangorin, Koop.elk. Txikiari dirulaguntzaren %60 ordaintzea (8.400€), hitzarmenean jasota bezala.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko martxoaren 27an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUedc9a88c-5384-4bc3-ab08-74389189edc4**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>